

Tuteran, 2002.eko urriaren 18an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, *Iker* Sailburua
Andres Urrutia, *Jagon* Sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Jose Mari Satrustegi,
eta (eguerdian) Patxi Zabaleta
euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudea-
tzaila, Juan Jose Zearreta ekonomi era-
gilea eta Patxi Salaberri, Onomastika ba-
tzordekidea, bere gaian.

Ezin etorriak: J.A. Arana Martija, M. Azkarate, P. Goenaga eta H.Knörr. Lehenak bere ahala A. Urrutiari, bigarrenak Euskaltzainburuari eta hirugarrenak P. Salabururi utzi diote.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Tuterako Dekano-jaregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Akta onartzea

P. Salaburuk eta A. Iñigok eginiko zuzenketekin, akta ontzat eman da.

Euskaltzaindikoko kide batzuen doktorego tesi eta katedrak

Miren Azkarate euskaltzainak eta Koldo Zuazo euskaltzain urgazleak Euskal He-

rriko Unibertsitatean katedra bana eta Gotzon Aurrekoetxeak irakasle titular plaza lortu dutela jakinarazi da. Era berean, Pruden Gartzia Euskaltzaindikoko Azkue bibliotekaren zuzendariak doktorego tesia aurkeztu eta gainditu duela adierazi da. Guztiei Euskaltzaindiaren zorionak helaraztea erabaki da.

Euskaltzain ohorezkoen proposamenak

J. Haritschelharrek, euskaltzain ohorezkoak izendatzeko orduan, Akademiaren araudiak dioena irakurri du. Ondoren, Zuzendaritzak bere proposamena aurkeztu du: Juan Garmendia; Jose Maria Larrarte, Ander Manterola, Georges Rebuschi, eta Larry Trask. J.M. Satrustegik aipatu du ez dela aurretiaz esan izendapenak egiteko garaia zela eta komeniko litzatekeela proposamen guztiak batera egitea, berak ere beste pertsona bat ere aurkeztu nahiko luke eta.

Erantzunez, euskaltzainburuak ahantzi zitzaioela azaldu eta hamabost eguneko epea eskaini dio, berak ere bere proposamena egin dezan, horren curriculumak euskaltzainaren artean banatuz. Ohorezkoen izendapena datorren bileran egitea erabaki da.

Urgazle berrien izendapenak

Euskaltzain urgazle berriak izendatzeari dagokionez, euskaltzainburuak, datorren azaroko bilkurarako, batzordeburu bakoitzak bere proposamenak aurkezteko esan du,

zein bere *curriculum vitae*-rekin, abenduan izendapenak egiteko. Era berean, gaineratu du Zuzendaritza ere arduratuko dela zenbaiten proposamenak egiteaz, eta Euskaltzaindiko sailetan aspaldian lankide diren eta unibertsitateko zientzi gaiak aspaldian euskaraz irakasten ari diren pertsona batzuen izenak aipatu dira. P. Salaburuk izendapenak egiteko irizpidea hobeki finkatu behar dela esan du. J.M. Satrustegik ere gauza bera uste du. Zuzendaritzan aipatu diren pertsona horiek direla eta, X. Kintanak zientzia arlo bakoitzeko aitzindari nabarmenak gogoan hartu direla esan du, baina, edonola ere, bat dator irizpideak aurretik ongi finkatzearekin. Izendapenak urtarrilerako atzeratzea onartu da, aurretik iritziak finkatu ondoren.

Fundazioari buruzko 3. dokumentua

A. Urrutiak lehengo testutik oraingora diren aldaketak eta zergatiak azaldu ditu, izandako aholkuak kontuan izanda. Denbora aurrera doa eta aurtengo abenduaren 19an sinatzea da helburua. J.L. Lizundiak Ohorezko Patronatuaz informazioa zehaztu eta gurekin arituriko maila handiko pertsonak aipatu ditu. Diru-emaielen xehetasunak ere argitu ditu. A. Eguzkitzak Fundazioak nolako balio-eremua duen galdetu du. Erantzunez, A. Urrutiak azaldu dio Euskal Autonomi Erkidegoko lege-oinarriaz eratu dela, baina nazioarteko balioa daukala. J.M. Satrustegik esan du Ohorezko Patronatuko kideak izendatzea gure oroimen historikorako ongi dagoela eta Robles Piquer jaunaren partaidetasun erabakigarria gogoratu du.

P. Salaburuk zenbait kezka azaldu du. Alde batetik, orain arte lorturiko seiehun milioi horiek Euskaltzaindiari korritutan diru gutxi ekarriko diote urtero. Bere ustez, Ministerioak inplikatu beharko liriateke, eta BBVAren zuzendaria ere bai, bankuarekin batera. A. Urrutiak azaldu dio fundazioaren diru hori hasierakoa besterik ez dela. Bestalde, banku eta erakunde batzuk, dirua eman bai, baina parte izan nahi gabe agertu dira.

J.L. Lizundiak uste du oraingo une politikoak zuhurtasuna eskatzen duela. Gainera, atzeratzeak diru-galerak ekar diezazkiguke. Bere aburuz, gero ere atxikimenduak etorriko dira. J.M. Satrustegik ere gauza bera pentsatzen du, hots, azken orduan pertsona berriekin mintzatzen hasteak atzerapen kaltegarriak ekarriko dizkigula.

Testuari egindako aldaketak onartu egin dira.

Eskuartekoak

Juan Antonio Mogelen omenezko programa aurkeztu da, *Peru Abarka* liburuaen bigarren mendeurrena ospatzeko, azaroaren 20, 22, 27, 28 eta 29an Markinan eta Eibarren burutzeko.

Ondoren, ospakizun beraren barruan, Eibarren antolatuko diren VII. Herri Literatura Jardunaldien egitaraua azaldu da, *Kantu laburrak* gaiaren inguruan. Azaroko osoko bilkura ere, 29an, Eibarren izango da.

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero Eleberri, Antzerki, Poesia eta Saiakera sariketa dela eta, 2002.eko Literatura deialdirako jasoriko obrak epaitzeko mahaien osaera erabaki da:

Eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Poesia: Jon Kortazar, Mikel Iasa eta Lourdes Otaegi.

Saioa: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Antzerkia: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Bestalde, Narratiba arloan Espainiako Literatur Sari Nazionala irabazi duelako, Unai Elorriaga idazleari zorionak ematea erabaki da. Gainera, Ana Toledo Euskaltzaindiaren epaimahaikide ordezkaturia izanik, honi ere eskerrak helaraziko zaizkio.

Aurtengo urriaren 3. an Jose Maria Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoa, 75 urte-ekin, hil dela ere gogoratu da. Hurrengo egunean Artaxoako Done Petri elizan egin zen hiletan, besteak beste, Euskaltzaindiko Onomastika batzordekideok izan ziren: J.M. Satrustegi (meza emaile), A. Iñigo, H. Knörr, M. Gorrotxategi, J.L. Lizundia, P. Salaberri eta P. Galé, haren senideei dolumina adieraziz.

Nafarroako Euskara Kontseiluaren berri

Nafarroako Euskara Kontseiluak urriaren 15ean izandako bilera dela eta, euskaltzainburuak ekitaldia nola joan zen azaldu du. Araudiaren aldaketetan, puntu nagusia quorum-arena izan zen, bera osatzen duten 20 pertsonetatik 3 egotea aski zela proposatzen zen eta. J. Haritschelharrek quorum urri horretaz bere adostasunik eza azaldu zuen. Erantzunez, Miguel Sanz presidenteak erantzun zion ez zuela pentsatzen sekulan hain gutxi bilduko zirenik. Botazioan abstenitu egin zen. Kide batzuk protestaz bilera-rik alde egin zutela azaldu du. Azkenean, dekretuaren zirriborroa banatu zitzaizen, iritzia emateko.

A. Iñigok oraingo testua eta lehenagokoa ia berdinak direla esan du, eta bi aldaketa besterik ez duela aurkitu. A. Urrutiak, dekretu horretaz bere iritzia eman du. Ondoren, A. Iñigorekin batera berori buruz prestatuturiko txostena aurkeztu eta euskaltzain-aren artean banatu du. Oihartzabalen ustez, oraingo testuak aurrekoaren aurka egindako adierazpenarekin bat etorri beharko luke.

11,40etan, bilkura eten da Tuterako herri agintariak agurtzeko. Luis Campoy herri-alkate jauna euskaltzainak hartu ditu, Tuterara ongi-etorria emanez eta guztiak agurtuz. Euskaltzainburuak eskerrak bihurtu eta, laburki, Akademiaren lan-zereginak azaldu dizkio. Era berean, Yēhudah ha-Levi Erdi Aroko Tuterako seme juduaren *Haizearen hegaletan* liburuaren ale bat eman dio, esker-erakutsiz. Ondoren euskaltzainak katedralaren kalostrara jaitsi dira, kafe-hamaiketako egiteko, hiriko udalak eskainia, hain zuzen.

12,21etan bilkurari berriz ere lotu zaio. A. Urrutiak dekretuari egindako txostena azaldu du. Ondoren puntu guztien idazketa xeheki berrikusi da, zuzenketak eginez.

J.L. Lizundia, X. Kintana, J.M. Satrustegi eta A. Urrutia Konstituzioaren 3.3. artikulua testuan azaltzeko komenientziak mintzatu dira. Eztatanda batzuen ondorioz, tes- tuan bera aipatzea erabaki da.

Dekretuak euskarari ematen dion trataera murriztaileagatik euskaltzainek aho ba- tez ezezko botoa ematea erabaki dute. Horrela, Euskaltzaindiaren ordezkariak Nafa- rroako Euskara Kontseiluaren aurrean beren botoen azalpenerako aurkeztuko duten tes- tua, Akademiaren iritzia agertzen duena, onarturik gelditu da.

Ondoren Euskaltzaindiaren ordezkaria izendatzera pasatu da. Euskaltzaindiak Na- farroako Gobernuagandik aginduriko dirua oraindik jaso ez duen arren, halere horrek ez lukeela ordezkaria izendatzeko oztopoa izan behar esan da. Berez, Nafarroako eus- kaltzain bat izatea komeniko litzatekeela ere aipatu da, baina, bestalde, Euskara Kon-

tseiluan lehendik egondakoen erosotasunik eza ere entzun da. Azkenean A. Iñigo euskaltzaina izendatu da. Euskaltzaindiak eskerrak eman dizkio ordezkari hori onartze-agatik.

Lehendakariarekiko bisita

Eusko Jaurlaritzak, J.J. Ibarretxe lehendakariaren politika-proposamena azaltzeko, urriaren 16rako, Euskaltzaindiari egindako gonbidapena dela eta, X. Kintanak azaldu du, euskaltzainburu eta buruordea egun horretan hartara ezin joana izanda, Akademiaren izenean bera joan zela. Bisita, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Herriaren Adiskideak erakundeen ordezkariekin batera egina, oso era lasai eta atseginean egin zen. Lehendakariak bere proposamenaren puntu nagusiak eta zergatiak azaldu eta dokumentua Euskaltzaindian aurkezteko eskatu zion, hiru erakundeen iritzia eskatuz. Idazkariak lehendakariari bisita eta harrera ona eskertu eta, Euskaltzaindia berez politikaz ez dela arduratzen gogoratu arren, halere, erabaki politikoez hizkuntzaren bizitzan eta iraupean izaten duten eraginagatik, interesaz jasotzen zuela proposamena eta Akademiara eramango zuela, beronek azter dezan.

Onomastika

Nafarroa Behereko herri izendegiaren 4. zerrendari (*Oztibarre*) J. Haritschelharrek, *Ibarla* formaren alde, eta J.L. Davantek eta X. Kintanak, *Ibarrola* forma hobetsiz, egindako oharra ikusi dira. Tradiziozko forma osoen alde A. Iñigo, J.M. Satrustegi eta A. Eguzkitza mintzatu dira, kasu konkretu honetan B. Oihartzabalek oraingo forma laburtua nahiago izanez. Bototara joanda, 10 Onomastika Batzordearen proposamenaren alde (*Ibarrola*), 3 *Ibarla*-ren alde eta abstentzio bat izan dira. Beraz, *Ibarrola* onartu da.

Patxi Zabaleta 13,20ean heldu da.

Hiztegi batua

Hiztegi batuari dagokionez, *altxortegi*-tik *amankomun*-era arteko hitzak banan-banan aztertu eta onartu dira.

Bilera 14,17etan amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana